

GIPUZKOAKO ENPREA EHUNAREN LEHIAKORTASUNA INDARTZEA SUSTATZEKO PROGRAMA – ELKARLANA

XEDEA: Gaitasun lehiakorak bultzatzea enpresen arteko lankidetzaren bitartez, proiektu jakin batzuk eta enpresa aukera berriak garatzeko dimentsio egokia (merkatuei erantzuteko ahalmena) lortzeko.

ONURADUNAK:

Gipuzkoan kokatutako eta lankidetzaren eta laguntza formularen baitako enpresak.

PROIEKTU MOTAK:

Diru laguntza jaso ahal izango dute enpresetan eskuhartze eta esperimentazio proiektu hauek garatzeko jarduerak:

- Enpresen arteko lankidetzarako ereduak diseinatzea eta aplikatzea
- Enpresen dimentsio berriak sortzea
- Jarduera produktiboak Gipuzkoara itzultzea (Reshoring), baldin eta aurrez azpikontratatuak, tokialdatutakoak edota Gipuzkoako enpresek EAetik kanpo garatutakoak badira
- Lankidetzan diharduten enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna handituko duten lankidetzaren proiektuak gauzatzea Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzaren eskumenen barruan.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailtasunik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)

Diru laguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.

PROIEKTUAK HASTEKO ETA EXEKUTATZEKO EPEA:

Diruz lagundutako jarduerak diru-laguntza eskaera aurkeztu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan, eta 2020ko maiatzaren 15erako bukatu behar dira.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPA ETA TOKIA:

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskera inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren web orrian, <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da eta **2019ko apirilaren 30an**, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.